

LARRA LARRAU 2025 EKO ARAUDIA

1. Gran Fondo LARRA LARRAU probaren 30. edizioa 2025eko irailaren 6an, larunbata, egingo da. 146 km-ko (luzea) ibilbideko parte-hartzaileen irteera-ordua 09:00etan izango da eta 100 km-ko (laburra) ibilbidekoena 09:30etan, Izaban (Nafarroa). 60 km-ko ibilbideko parte-hartzaileen irteera, berriz, 10:00etan izango da. Ordu-tegi horiek aldatu egin daitezke martxaren antolaketarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik.

Izena emateko eskubideek honako zerbitzu hauek dituzte:

- Probako maillot ofiziala
- Izena emandako ibilbiderako sarbidea
- Probako horniduretarako sarbidea
- Laguntza mekanikoa proban zehar
- Osasun-laguntza proban zehar
- Larraine herritik Larrau gainera autobusez igotzea, nahi izanez gero.
- Kontsigna-zerbitzua
- Dutzak, komunak eta masajea.
- Ondorengo bazkaria.

Izen-emateak eta izen-ematearen eskubideek honako kostu hau dute:

Izen-emateak irekitzen direnetik, urtarrilaren 29tik, apirilaren 22ra arte:

- 60K-ko ibilbidea: 48 €

- Gran Fondo 100K: 58 €

- Gran Fondo 146K: 60 €

Apirilaren 23tik uztailaren 29ra:

- 60k-ko ibilbidea: 50€
- Gran Fondo 100k: 62€
- Gran Fondo 146k: 66€

Uztailaren 30etik irailaren 5era edo izen-emateak amaitu arte:

- 60k-ko ibilbidea: 58€
- Gran Fondo 100k: 70€
- Gran Fondo 146k: 72€

7 € gehiago ordainduko da federatu gabe egonez gero. 1.200 parte-hartzailera iristean itxiko dira izen-emateak.

2. Izena emateko unean, parte hartu nahi duzun ibilbidea aukeratu beharko duzu. Lasterketaren eguna hurbiltzen ari den heinean ibilbidea aldatu nahi baduzu, antolakuntzari jakinarazi beharko diozu, abuztuaren 29a baino lehen, info@larralarrau.com helbide elektronikora mezu bat bidalita.
3. La Gran Gran Fondo 18 urtetik gorako zikloturista ororentzat egongo da zabalik, eta ezinbestekoa izango da aurtengo (2025) federazio-lizentzia (RFEC) aurkeztea. Federatu gabe egonez gero, eguneko lizentzia erosi beharko da NAHITAEZ, martxaren egunerako soilik balio duena, eta 7 €-ko kostua izango du.
4. Dortsala jasotzea. NAHITAEZKOA izango da NANA eta federazio-lizentzia aurkeztea. Lizentzia aurkezten ez bada, eguneko aseguruua kontratatu beharko da, eta 7 €-ko kostua izango du. NANA edo nortasuna ziurtatzen duen agiri ofizialik aurkezten ez bada, ez da dortsalik emango.

Beste pertsona bati zure dortsala jasotzeko baimena eman diezaiokezu. Horretarako, zure izen-ematearen egiaztagiria eta egiaztagiriaren titularraren NANaren argazkia edo fotokopia aurkeztu beharko ditu.

5. Izen-ematea norberarena da, eta ezin da besterendu zehaztutako epeetatik kanpo.

- 5.1. Diru-itzulketak: 2025eko abuztuaren 23ra arte onartuko dira itzulketak, eta izen-ematearen zenbateko osoa itzuliko da. Data horretatik aurrera ez da itzulketarik onartuko, eta ez da izen-ematearen zenbatekoa itzuliko.
- 5.2. Titulartasun-aldaketak: abuztuaren 29ra arte aldatu ahal izango da titulartasuna. Titulartasun-aldaketa eskatzeko mezu elektronikoa bidali beharko duzu info@larralarrau.com helbidera, dortsala transferitzen zaion pertsonaren datuekin.
6. Ez da onartzen dortsalik gabeko parte-hartzailerik.
7. Antolakuntzak indarrean dauden trafiko-arauak bete behar ditu. Parte-hartzaileek indarrean dagoen Zirkulazio-kodearen arauak bete beharko dituzte, eta eurak hartuko dira egin ditzaketen arau-hauste guztien erantzuletzat.
8. Homologatutako kaskoa nahitaez erabili behar da.
9. Antolakuntzak ez du bere gain hartuko parte-hartzailearen kausa edo biktima izan daitekeen istripurik, lizentziaren berezko aseguruak estalita egon beharko baitu; era berean, ez da solidarioa izango parte-hartzaileek martxan zehar izan ditzaketen gastu eta zorreatatik, ez eta bizikletek edo parte-hartzaileen bestelako ekipamenduek izan ditzaketen galera edo matxurengatik ere.
10. Antolakuntzak laguntza mekanikoa eskainiko du proban zehar. Matxurarik izanez gero, eskulana doakoa izango da, baina piezak parte-hartzaileak ordaindu beharko ditu.
11. Proba trafikoari irekitako errepideetan egingo da une oro. Irekitzeko ibilgailu bat izateak ez du esan nahi trafikoa geldiarazten denik, seinaleztapena besterik ez da.
12. Antolakuntzak beretzat gordetzen du aldaketa egokiak egiteko eskubidea, arrazoiren batengatik beharrezko irizten dionean.
13. Inola ere ezingo da gaintitu martxa irekitzen duen ibilgailua. Gaintitzen duena, automatikoki, LARRA LARRAU probatik kanporatuko da, eta bere dortsala antolakuntzako kideren bati eman beharko dio, eta ibilbidea bere kontura eta arriskura jarraitu beharko du.

14. Segurtasun-arrazoiengatik hala gomendatzen duten ibilbideko eremuetan, antolakuntzako ibilgailuek parte-hartzaileen abiadura kontrola dezakete. Kasu horietan, nahitaez bete beharko dira horietatik egiten diren argibide guztiak.
15. Antolakuntzak, edozein unetan, martxa neutralizatzeko eta martxa horretan gertatzen den edozein gorabehera konpontzeko eskubidea gordetzen du.
16. Ezinbesteko arrazoiak direla-eta antolakuntzak martxa bertan behera utzi behar badu, antolakuntzak berak finkatuko ditu izen-ematearen dirua itzultzeko baldintzak, bai eta zenbatekoa ere, betiere egoeraren arabera.
17. Ez zaie inolako zenbatekorik itzuliko (ezta izen-emate gisa ere) aldez aurretik izen-ematea ordaindu eta ibilaldira ez doazen zikloturistei. Horiei opari-poltsa emango zaie, bai eta ordaindutako fidantza ere, horretarako zehazten diren egun, leku eta orduetan. Ez da inola ere bidalketa pertsonalik egingo.
18. Kontrol- eta segurtasun-arrazoiak direla eta, Gran Fondo Larra Larrau 146 proban 58,5. km-an (Lanneko bidegurutzea Izarberako norantzan) ibilbidea itxi egiten da 12:00etan. Ordu horretatik aurrera, zikloturistak Atharratze/Liqc/Larraine bidetik desbideratuko dira.
19. Gran Fondo honetan izen-emateak berekin dakar erregelamendu hau onartzea eta martxan sor daitezkeen kalteen ondorioz antolakuntzaren aurka sortutako eskubide guztiei uko egitea.
20. Parte-hartzaileak, izena ematean, antolakuntzaren esku uzten du bere irudi pertsonala modu eskusiboan, eta, beraz, antolakuntzak bakarrik lor ditzake argazkiak eta gero ustiatu, dela komunikabideei lagata, dela salgai jarrita.
21. Sariak: Opari bat emango zaie laster argitaratuko diren kategoria sinbolikoei.
22. LARRA LARRAU GRAN FONDO BERDE bat da, eta beraz, berdin errespetatzen ditu bide-segurtasuna eta ingurumena. Parte hartzaile guztiek:
 - Bide publikoen gainerako erabiltzaileak errespetatu beharko dute, eta ez dute gainerakoentzat eta norberarentzat arriskurik sortuko. Bizikletara igotze hutsak dakarren arriskuaz jabetu beharko dute eta, arrisku hori txikitzeko, bide-segurtasuneko arauetako errespetua adierazi beharko dute. Beti edukazioz, erantzukizunez eta errespetuz jokatu beharko dute.

- Naturaz gozatu beharko dute. Ingurumenarekin sintonia onean bizi beharko dute, ingurumena zaintzea eta errespetatzea sustatuz. Kirol-jarduerak ingurumena hondatzen ez duten lekuetan eta moduan egin beharko dute.
- Errepideak ongi erabili beharko dituzte. Ez dituzte zikindu edo hondatu behar. Martxaren ibilbideetan ez dute inoiz hondakin ez-biodegradagarririk utzi behar. Ingurunea garbi mantendu beharko dute.

BALDINTZAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Badakit eta onartzen dut:

1. Martxa bizikleta-ibilbide lehenetsia dela, trafikoari irekitako zirkulazioa dagoen bide publikoetatik igarotzen dela eta txango pertsonal gisa pentsatuta dagoela.
2. Ezagutzen eta onartzen dudala martxaren txango pertsonalaren izaera.
3. Ibilbide-orri bat ematen zaidala, eta txangoa osatzeko proposatutako ibilbidea adierazteko asmoa besterik ez duela.
4. Ekitaldi honetan txangoaren araudiaren kopia bat ematen zaidala.
5. Araudi horren edukia ezagutzen dudala adierazten dudala, eta oso-osorik onartzen dudala.
6. Adierazten dudala badakidala lehia baztertzen den txango pertsonala dela (antolatzaileek berariaz adierazitako tartea izan ezik).
7. Aitortzen dudala badakidala proba trafikoari irekitako bide publikoetatik igarotzen dela.
8. Onartzen ditudala trafikoari irekitako proba horretan parte hartzeak dakartzan arriskuak.
9. Bide-segurtasunari buruzko Legearen eta haren Erregelamenduaren arauak betetzeko konpromisoa hartzen dudala, nire segurtasuna eta bide publikoko gainerako parte-hartzaile eta erabiltzaileen segurtasuna zainduz.
10. Izabako Udala, probaren antolatzailea izanik, zirkulazioko gertakariengatik nahiz kirol-istripuengatik gertatutako edozein istripuren ondoriozko erantzukizunetatik salbuesten dudala.

11. Osasun-arrazoiak direla-eta, txango honetan parte hartzeagatik sor litekeen edozein kaltetatik salbuesten ditudala lehen aipatutakoak, proba honetan parte hartzeko eskatzen den esfortzu fisikoak osasunerako dakarren arriskua neure gain hartuz, eta horretarako gai naizela adierazten dudala.
12. Proban parte hartzeak dakartzan arriskuak ezagutzen ditudala, hala nola:
- Antolakuntzakoak ez diren askotariko ibilgailuak egotea probaren ibilbidean.
 - Ibilgailu horiek txirrindularien artean zirkulatzen dutela, bideetako erabiltzaile arrunt gisa.
 - Onartzen dudala eta badakidala askotariko ibilgailuak aurkituko ditudala, bai probaren martxaren kontrako noranzkoan zirkulatzen, bai probaren garapenaren noranzko berean.
 - Kontu handiz ibili beharko dudan tarte arriskutsu batzuk daudela.
 - Jaitsiera luzeak daudela, bihurguneekin, eta horietan abiadura motelduko dudala, norberaren eta/edo besteen kalteak saihesteko.
 - Tarte batzuetan errepideen egoerak ez dituela segurtasun-baldintza egokiak betetzen, eta errepideen, bideen eta bidexken egoera txarraren ondorioz edo bide-azpiegituretako akatsen ondorioz izandako edozein kalteren erantzukizuna nire gain bakarrik hartuko dudala.
 - Txirrindularitzari lotutako kirol-istripu bat izateko aukera dagoela, eta nire gain hartzen dudala probako edozein parte-hartzaileri eragin dakizkiokedan istripuen erantzukizuna.
 - Probatik kanpoko hirugarren bati istripu bat eragiteko aukera dagoela, eta neure gain hartzen dudala istripu horren erantzukizun osoa.
 - Azienda, etxeko animaliak edo animalia basatiak egon daitezkeela, baita horien hondakin organikoak ere.
13. Antolakuntzaren edo ondorio horietarako izendatutako enpresaren/enpresen esku uzten dut nire irudi pertsonala modu eskusiboan, nire argazkiak lortu eta gero komertzialki ustiatzeko, dela komunikabideei lagata, dela salgai jarrita.

DBLO KLAUSULA

IZABAKO UDALAK Datu Pertsonalak Babesteko araudia erabat betetzen dela bermatzen du, eta horrela, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin bat etorritik, zure datuak honako helburu honekin biltzen direla jakinarazten dizu: Kudeaketa administratiboa, komertziala eta lotutako beste jarduerak batzuk. Tratamendurako oinarri juridikoa sinatutako lankidetzaren hitzarmena da. Edonork eska dezake bere datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, aurka egiteko edo eramangarritasunerako eskubidea gauzatzeko. Horretarako, gure bulegoetako helbidera idatzi behar du, edo mezu elektronikoa bidali udala@isaba.es helbidera, edo idatzi bat bidali beharko diozu ISABAKO UDALARI Izarjentea auzoa 1, 31417 Izaba (Nafarroa) helbidera, gauzatu nahi duen eskubidea adierazita. Tratamenduaren erantzulea IZABAKO UDALA izango da, eta lehen adierazitako helbidean izango du helbidea ondorio horietarako. Informazio gehiago eskuratzeko, joan gure webgunera: <https://isaba.es/aviso-legal/>

Zure datu pertsonalak IZABAKO UDALAREN barne-kudeaketa eta -administrazioa behar bezala garatzeko beharrezkoak diren jardueretarako bakarrik laga daitezke.